



**ARETXABALETAKO UDALA**

**AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA**

**Diru-laguntza Aretxabaletako Ostalaritzari, terrazetako inbertsioak finantzatzeko.**

**Subvención para la Hostelería de Aretxabaleta para financiar inversiones en terrazas.**

**1. Xedea.**

Oinarri hauen xedea, Aretxabaletako Udalak Covid-19ak eragindako egoeraren aurrean Aretxabaletako ostalaritza sektoreari eta bestelako aktibitateek kalean jarritako terrazetan zerbitzua emateko beharrezko diren inbertsioetan laguntzea da.

**1. Objeto.**

El objeto de estas bases es regular las subvenciones para el apoyo a las inversiones necesarias para la prestación del servicio en las terrazas establecidas en la vía pública por el sector de hostelería de Aretxabaleta y otras actividades ante la situación generada por el Covid-19.

**2. Erakunde onuradunak.**

Laguntzaren onuradunak Aretxabaletako ostalaritza sektoreko aktibitateak izango dira. Baita, ostalaritza aktibitatean zehazki ez daudenak, baina lokalaren kanpoaldean terraza zerbitzua duten negozioiak.

**2. Entidades beneficiarias.**

Serán beneficiarias de la ayuda las actividades del sector de hostelería de Aretxabaleta. Así mismo, aquellos que no se encuentran específicamente en la actividad de hostelería pero que tienen servicio de terraza en el exterior del local.

**3. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak.**

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

**3. Requisitos que deben cumplir las entidades beneficiarias.**

Las entidades beneficiarias deben cumplir los siguientes requisitos:

- Aretxabaletan kokatutako establezimendua izatea.
- Ostalaritza aktibitatea edo lokalaren kanpoan terraza zerbitzua izatea.
- Terraza jartzeko, Hirigintza sailaren onarpena edukitzea.
- Aretxabaletako Udalarekin zorrik ez edukitzea.

- Establecimiento ubicado en Aretxabaleta.
- Actividad hostelera o bien disponer de servicio de terraza fuera del local.
- Para establecer la terraza, disponer de la aprobación del área de Urbanismo.
- No tener deudas con el Ayuntamiento de Aretxabaleta.

**4. Diruz laguntzeko diren inbertsioak, dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak.**

Covid-19aren pandemiagatik terrazetan egin behar izan diren inbertsioak diruz lagunduko dira.

2020ko martxoaren 14tik 2021eko urriaren 29a bitartean eginiko material erosketa edo inbertsioak (fakturaren data hartuko da kontuan): toldoak, itzalkinak, jaimak, berogailuak, altzariak...

Programa honek finantzatuko du establezimenduak eginiko material erosketa edo inbertsioen %30 arte, gehienez jota 3.000 euro aktibitate bakoitzari.

**4. Gastos subvencionables, cuantía de las ayudas, y límite.**

Se subvencionarán las inversiones en terrazas que hayan sido necesarias por la pandemia Covid-19.

El presente programa podrá subvencionar las compras de material o inversiones realizadas entre el 14 de marzo de 2020 y el 29 de octubre de 2021 (se tendrá en cuenta la fecha de la factura): toldos, sombrillas, jaimas, calefactores, mobiliario...

Se financiará hasta el 30% de la adquisición o inversión de material realizada por el establecimiento, con un máximo de 3.000 euros por actividad.

**5. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.**

1. Dirulaguntza eskatzeko, eskaera-orria bete, sinatu eta hurrengo puntuan zerrendatzen den dokumentazioarekin batera udaletxean aurkeztu beharko da Internet bidez [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus) helbidean. Pertsona fisikoaren kasuan udaletxean, Otalora kalea, 1ean, aurkeztu ahal

**5. Presentación de solicitudes y documentación.**

1. Para solicitar la subvención, se deberá rellenar la solicitud, firmarla y presentar junto con la documentación detallada en el siguiente punto en el Ayuntamiento a través de internet en [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus). En el caso de las personas físicas, se podrá presentar en el

izango dute.

2. Eskaera orriarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a. Pertsona juridikoaren kasuan, sozietate-izena eta IFK, edo NAN pertsona fisikoaren denean.
- b. Dirulaguntza eskaera aurkezteko momentuan Ogasunean ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria, edota Udalari baimena eman datu horiek egiaztatzeko.
- c. Dirulaguntza eskaera aurkezteko momentuan Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria, edota Udalari baimena eman datu horiek egiaztatzeko.
- d. Enpresak JEZ-n alta egotearen ziurtagiria.
- e. Inbertsioen fakturak, establezimenduaren terrazan egindakoak, Covid-19aren pandemiagatik.

Ostalaritza establezimendu bakoitzeko laguntza eskaera bat egin beharko da.

3. Eskatutako dokumenturen bat dagoeneko Aretxabaletako Udalaren organoren batek bere esku edukiko balu, dirulaguntzaren eskatzaileak, aukeran, heldu ahal izango dio 39/2015 Legearen 53.1.d, 28.2 eta 28.3 ataletan ezarritakoari. Horretarako, eskatzaileak adierazi egin beharko du noiz eta zein sailean aurkeztuak edo emanak izan ziren dokumentuok, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro zegoen prozedura amaitu zenetik.

Eskabideak edo dokumentazio lagungarriak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko (39/2015 Legearen 68.1 art.). Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere 39/2015 Legearen 93. eta 94. artikuluetan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

#### **6. Eskaerak aurkezteko epea.**

Laguntza horiek eskatzeko epea deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2021eko urriaren 29an amaituko da.

#### **7. Finantzazioa.**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak laurogeita hamar mila eurokoak dira (90.000€), Aretxabaletako Udalaren 2021eko udal-aurrekontuko 1.0701.771.431.00.01 aurrekontu-partidatik.

#### **8. Ebazteko eskumena duen organoa, dirulaguntzak**

Ayuntamiento sito en Otalora kalea, 1.

2. Junto con la instancia de solicitud deberá presentarse la siguiente documentación:

- a. CIF de la actividad y nombre social en caso de persona jurídica o DNI en caso de persona física.
- b. Certificado de estar al corriente de pagos en Hacienda en el momento de presentar la solicitud de subvención, o autorizar al Ayuntamiento la verificación de dichos datos.
- c. Certificado de estar al corriente de pagos en la Seguridad Social en el momento de presentar la solicitud de subvención, o autorizar al Ayuntamiento la verificación de dichos datos.
- d. Certificado de alta en el IAE de la empresa.
- e. Facturas de las inversiones realizadas en la terraza del establecimiento, debido a la pandemia del Covid-19.

Se deberá presentar una solicitud por cada establecimiento de hostelería.

3. En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder de cualquier órgano del Ayuntamiento de Aretxabaleta, quien solicite la subvención podrá acogerse a lo establecido en los apartados 53.1.d, 28.2 y 28.3 de la Ley 39/2015, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento a que correspondan.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a los interesados un plazo de diez días para subsanar los defectos detectados (art. 68.1 de la Ley 39/2015), transcurrido el cual, sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidos de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley 39/2015.

#### **6. Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo para solicitar estas ayudas comenzará el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el 29 de octubre de 2021.

#### **7. Financiación**

Los recursos económicos destinados a la financiación de las ayudas reguladas en la presente convocatoria ascienden a noventa mil euros (90.000€), del Presupuesto Municipal 2021, partida presupuestaria 1.0701.771.431.00.01. del Ayuntamiento de Aretxabaleta.

#### **8. Órgano competente para la resolución,**

**emateko prozedura, ebazpena, epeak, eta berraztertze errekurtsoa.**

1. Dirulaguntza hauek ebazteko eskumena Alkatetzak izango du. Dekretu bidez ebatziko dira, enplegu sailak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiztatu ostean.

2. Dirulaguntza eman edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, egiazaturik egongo dira hartzen den erabakiaren oinarriak, oinarri-arauetan agintzen dituzten irizpide objektiboek buruz.

Eskatzaileari jakinaraziko zaion ebazpenean, berariaz adieraziko dira diru-laguntzaren xedea, zenbatekoa, ordaintzeko modua, justifikatzeko modua eta oinarri orokor hauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak.

Era berean, horren aurka jar daitezkeen errekurtsok adieraziko dira udalaren erabakian, bai eta zein organo judizialean aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epea ere, interesdunek bidezkotzat jotzen duten beste edozeinen kalterik gabe.

**9. Erakunde onuradunen betebeharrak.**

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotako ez gain, entitate onuradunaren obligazioak dira hauek:

a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza egitea edo dirulaguntza emateko zio den jokabideari eustea.

b) Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.

c) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.

d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diru lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta edozelan ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

e) Gizarte Segurantzarekiko, Aretxabaletako Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.

f) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea,

**procedimiento de concesión, resolución, plazos y recurso de reposición.**

1. La competencia para resolver la concesión de estas ayudas será de Alcaldía. Se resolverán por decreto, previa comprobación de los requisitos establecidos en estas bases por parte del departamento de Empleo.

2. La resolución de concesión o denegación, según proceda, de la ayuda o subvención deberá ser motivada, y en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen en la norma o bases.

En la resolución, que se notificará a la persona solicitante, se hará constar expresamente el objeto, su cuantía, la forma de pago, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en estas Bases Generales.

Igualmente, en la resolución municipal se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

**9. Obligaciones de las entidades beneficiarias.**

En caso de concesión de subvención, además de las recogidas en las Bases específicas, son obligaciones de la entidad beneficiaria las siguientes:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el órgano concedente, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectos por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

d) Comunicar al órgano concedente la concesión de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos.

e) Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Aretxabaleta, la Hacienda Foral y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

f) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el

dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero.

**10. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat etortzea eta finantzazio muga.**

Programa honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu berdinak dituzten eta/edo kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten erakunde publiko edo pribatuetatik jasoko diren bestelako laguntzekin, beti ere, gain-finantzazioa gertatzen ez bada; kasu horretan, programa honen bidez emandako dirulaguntza soberako zenbatekoan gutxituko da.

**11. Dirulaguntza ordaintzeko modua eta epeak.**

Onuradunei dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaie deialdia ebatzi ondoren eta ebazpenean ezarritako epean.

desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

**10. Concurrencia con otras ayudas y límites de financiación.**

Las ayudas previstas en el presente programa serán compatibles con otras ayudas provenientes de organismos públicos o privados que tengan el mismo objetivo y/o que subvencionen los mismos conceptos, siempre que no se incurra en sobrefinanciación; de superarse dicho umbral, la subvención a otorgar a través de este programa se reducirá en la cuantía excedida.

**11. Forma y plazos de abono de la subvención.**

El abono de la subvención a las personas beneficiarias se realizará en un único pago tras la resolución de la concesión y en el plazo en el que se establezca en la misma.